

EUSKARAREN BIDAIK: SUSTRAIETATIK ADARRETARA ETA HAINBAT NORABIDETAN

Euskararen ikasketa prozesua eta erabilera irudi baten bidez islatzekotan sustraietatik adarretarako eta hainbat norabidetako bidaiarena izan daiteke. Bi eremu bereiz daitezke historian zehar euskal emigrazioa jaso duten eta ez duten herrialdeen artean. Euskal diasporan sarritan sendiaren, norberaren nortasunaren erroen, sustraien bilaketa prozesuaren ondorioz hurbiltzen dira euskara hizkuntzara, beste batzuetan berriz euskara ikasten hastean jasotzen dute euskal migrazioaren garrantziaren eta presentzia errotuaren berri. Euskal diasporarik ez den eremuetan aldiz euskara ikasleak harreman pertsonalik izan gabe, euskararen ezaugarri linguistikoen erroak aztertzeke eta euskal kulturaren oinarriak ezagutzeko jakinmina izaten da, beraz adarrei ekiten diete, euskara erabiltzeke eta behatzeko tresnak ikasten dituzte euskararen sustrai linguistikoak eta euskal kulturaren oinarriak aztertzeke.

Etxepare Euskal Institutua eratzeko legea 2007 urtean onartu¹ eta 2010 urtean abian jarri zenetik, euskarak gure mugez gaindi duen presentzia zaindu eta indartzen laguntzen aritu da. Izan ere erakundearen helburuen artean, euskarari dagokionean, ondokoak zehazten dira 2007 urteko legean: Euskararen irakaskuntza, ikasketa eta erabilera mundu osoan sustatzea; Euskarak nazioartean onespina lor dezan bultzatu eta sustatzea; gure herrialdeko errealitatea euskaraz hitz egiten duten mundu osoko kolektibitateetara eta hainbat herritara hurbiltzea.

Euskarari dagokionez bi eremu nagusi badira Etxepare Euskal Institututik lantzen direnak gaur egun euskararen irakaskuntza, azterketa, ikerketa eta erabilerari dagokionez: nazioarteko unibertsitateetan eratutako irakurletza eta katedra sareak, alde batetik, eta Euskal Etxeen artean ehundutako Euskara Munduan programako sarea.

1.Irakurletza eta katedra sarea Etxepare Euskal Institutuan: Euskararen bidaiak, sustraietatik adarretara eta adarretatik sustraietara

Etxepare Euskal Institutuaren jarduera nagusietako bat izan da sortu zenetik euskara eta euskal kultura irakurletza programa bere gain hartu eta osatzea. Programa Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailburuordetzak abian jarria zuen 90. hamarkadan, Etxepare Euskal Institutuak programari jarraipena eman dio, eta munduko hainbat unibertsitateekin sinatutako lankidetzak hitzarmenei esker lizentzia eta gradu mailan munduko unibertsitateetan irakasten da euskara eta euskal kultura. 2016-2017 ikasturtean, 18 herrialdeetako 34 unibertsitate ezberdinetan euskara eta euskal kulturako eskolak eskaintzen dituzte 30 irakurlek.

¹ Jaurlaritzaren Lehendakaritza; 3/2007 LEGEA, apirilaren 20koa, Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute Sortzeke eta Arautzekoa. EHA 89 (2007/5/10) 10704-10713, <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2007/05/0702618a.pdf>



2017-2018 ikasturteko irakurletza eta katedren sarea. Etxepare Euskal Institutua. 2017 urteko memoria. <http://www.etxepare.eus/media/uploads/publicaciones/Etxepare-2017memoria.pdf>, 67. Orria.

Euskarako ikasgaietan izena ematen duten ikasleen matrikula kopuruei dagokionez, 2016-2017 ikasturtean 1793 izen-emate izan dira, eta 53 pertsona izan dira entzule gisa eskola hauetan (Europa: 925; Amerika: 840; Asia: 28)².

Irakurle bat Euskal Herritik kanpoko unibertsitatearen batean euskara eta euskal kultura eskolak ematen dituen irakaslea da. Horrez gain, esparru akademikoan gure hizkuntzaren eta kulturaren ordezkari eta dinamizatzaile izateaz ere arduratzen da, kultur ekintzak eta ekintza akademikoak antolatuz.

Euskara eta euskal kulturako katedra sarea ere atzerriko hainbat unibertsitatearekin sinatutako lankidetzak hitzarmenen bidez eratu eta zabaldu da, euskal ikasketei buruzko irakaskuntza espezializatua, bereziki, graduondoko mailakoa, eta euskal ikasketei buruzko ikerketa akademikoak ere sustatzeko. Katedra bakoitzak euskal kulturako gai jakin bat hartzen du ardatz gisa, eta egun ditugun zortzi katedretan euskal ikasketei buruzko programa akademikoak antolatzen ditu urtero Institutuak unibertsitatearekin lankidetzan. Urteroko programa akademikoa osatzeko urtean hautatuko gaian aditua den irakasle espezializatuak edo artistak egindako egonaldien eta eskainitako ikasgai, mintegi, saio, hitzaldi, etabarren bitartez gauzatzen da. 2017-2018 urtean 8 unibertsitatez osatutako katedra sare honetan 200 hartzaile inguruk jaso dituzte hitzaldiak, masterreko eskolak, jardunaldiak euskara eta euskal kulturari buruz.

Irakurletza sarean euskara eskolak jasotzen dituzten ikasleak izaten dira euskara erabiltzera iritsiko direnak, euskal hiztunak izango direnak, aldiz katedra sarean euskarari buruzko azterketa espezializatuak izaten dira erdigunean.

Sarreraren azaldu bezala, euskararen bidaia irakurletzetako ikasleen kasu askotan “adarretatik sustraietara” esamoldearekin deskriba daiteke, izan ere sarri gertatzen da

² Etxepare Euskal Institutua. 2017 urteko memoria. <http://www.etxepare.eus/media/uploads/publicaciones/Etxepare-2017memoria.pdf>, 66. Orria.

munduko hainbat puntutan unibertsitateko ikasleak hizkuntza berezi bat ikasten hasten direla eta laster ohartzen direla urte askotan euskal elementuez inguratuta bizi izan direla, esaterako toponimian. Urrutiko hizkuntza ikasten hasi eta beren errealitate propioa hobeto ezagutzeko bidaia egiten dute.

Bestalde, irakurletzetan euskara ikasteko programa osagarri gisa urtero Etxepare Euskal Institutuak Zornotzako Aurten Bai Fundazioarekin duen elkarlanerako hitzarmenaren bidez Zornotzako Aurten Bai barnetegian bi astez ikastaroa, ostatua eta mantenua doan izateko aukera du irakurletza sareko 25 ikaslek, beraz hizkuntzaren ikaskuntza euskal gizarte eta euskal kulturaren zuzeneko ezagutzarekin ere uztartzen dute. Horrek salto kualitatibo izugarria ekartzen dio beren hizkuntza gaitasunari eta baita motibazioari ere³.

Etxepare Euskal Institutuko irakurletza eta katedra sarean euskararen irakaskuntza eta erabileraren lorpenak aztertu eta azken bost urteetako aurrerapausoak azpimarratzekotan, hauek lirateke:

-sarearen sendotasuna: estatuko eta atzerriko unibertsitate eta erakundeekin sinatutako lankidetzak hitzarmenak egonkortasuna lortu dute eta arduradun akademikoen fideltasuna eta konpromisoa indartzen joan dira. Horrek guziaz euskararen irakaskuntza sendotu du.

-motibazio eta helburuen aniztasuna: aniztasun honek aberastasuna dakarkio munduko unibertsitateetan euskarak duen presentzia eta ibilbide akademikoari. Irakurletzak kasu batzuetan diasporari lotutako unibertsitateetan daude (Txileko Santiagoko Unibertsitatea, Txileko Pontifize Unibertsitate Katolikoa, Mexikoko UNAM Unibertsitatea, Argentinako La Platako Unibertsitatea, Boise State University, etab.), beste batzuetan ez dago horrelako loturarik (Finlandian Helsinkiko Unibertsitatea, Liverpooleko Unibertsitatea, Frankfurtuko Goethe Unibertsitatea, etab.). Beraz, irakurletza sareko ikasle batek euskara ikasteko dituen helburu eta motibazioak filologikoetatik hasi eta lotura emozionaletara (arbasoak hobeto ezagutzea, arbasoen legatua berreskuratzea, arbasoei zorra kitatzea beren hizkuntza erabiliz, bikote euskalduna izatea, atzerrian bizi dena, etab.), edota kultura baten nortasunaren gaiari lotutako jakinminera joan daiteke.

-erabilera: irakurletza eta katedretako testuinguruan erabileraren kontzeptua ikasgelatik harago euskarak duen presentzia litzateke. Zentzu horretan irakurletza eta katedretan hainbat ekintza akademiko eta kultur-ekintza antolatzen dira urtean euskarari lotuak (Korrika, kongresuak, jardunaldiak, ekintza ludikoak, mintegiak, barnetegiak, lehiaketak, kontzertuak). Hainbat kasutan Euskal Etxeetako eta

³ Europa Press. "Nazioarteko 23 ikaslek euskara ikasteko egonaldiak egingo dituzte Zornotzako Barnetegian". www.deia.eus

<http://www.deia.eus/2018/06/29/bizkaia/nazioarteko-23-ikaslek-euskara-ikasteko-egonaldiak-egingo-dituzte-zornotzako-barnetegian->

unibertsitateko irakurleak lankidetzan aritzen dira dinamizazio eta erabilerarako ekimen lan hauetan.

-ikerketa: euskarari lotutako gaiak nazioarteko akademian, hau da, irakurletza eta katedra sarean azken urteetan presentzia handiagoa izaten ari dira. Esate baterako, irakurletzei lotuta 2017-2018 urtean 9 ikerketa lan burutu dira euskarari lotuak. Doktoretza lan bat, master amaierako lan bat eta 6 lan akademiko gradu mailakoak.

2.Euskara Munduan: Euskararen bidaia, sustraietatik adarretara.

Asko izan dira, arrazoi batengatik ala bestearengatik, Euskal Herria utzi eta mundu osora barreiatu direnak. Euskaldun horiek hizkuntza beraiekin eraman zuten eta horrela Euskararen mugak zabaldu. Askok, hain zuzen ere, euskara ez zuten komunikazio hizkuntza eta harrera herrialdeetan horren erabilera etxera ala Euskal Etxera mugatzen zen, izan ere, beste hizkuntza batzuk ikasi behar izan zituzten herrialde horietan integratzeko.

Gero eta murriztago bilakatzen zen euskararen erabilera esparrua eta bere prestigioa ere gutxitzen joan zen, izan ere, gizarte haietan ez zuen baliorik, eta askok eta askok nahiago zuten beren seme-alabek bertako hizkuntza ondo ikastea (gaztelera, ingelesa...) euskara erabiltzeari horrelako garrantzia eman gabe. Belaunaldi berriei hizkuntzaren igorpena huts egiten hasi zen eta poliki-poliki galtzen.

Testuinguru horretan, eta galerari, nolabait, buelta eman nahian, euskarazko eskolak antolatzen hasi ziren euskal etxeetan, baliabide eskasekin. Ez ziren irakasleak, hiztun borondateak, baizik. Ez zuten ikas-irakas materialik. Asko alfabetatu gabeak ziren. Hala ere, txalotzekoa da haien borondate eta ahalegina. Haien izan ziren lehenengo haziak jarri zituztenak eta urteak eta urteak geroago bizi-bizirik dagoen arbola bilakatu dena.

Hasierako eskola haien iraunkortasuna oso ahula zen. Besteak beste, beti ez zuten hiztun/irakasle bat eskura inguruan eta zaila zitzaien jarduera egonkorra bermatzea. Europako euskal etxe batzuetan egoera hobea bazen ere, Madril, Bartzelona, Bordele, Paris... ia mundu osoan ematen zen egoera hori.

Aipatu egoera horretan, Macachin-en (Argentina) 1989ko euskal astearen markoan FEVAko arduradunek (Federación de entidades vasco-argentinas), orduango E.A.E.ko lehendakariari bertako euskal etxeetan euskararen ezagutza eta presentzia bermatzeko laguntza eskatu zioten eta horixe izan zen, hain zuzen ere, handik ekarri zuen mandatua.

Mandatu hari erantzun nahian, "Argentinan Euskaraz" ekimena jarri zen abian: lehenengo ikasle taldea sortu zen 1990eko urtarrilean. Lehenengo talde hura 17 gaztek osatzen zuten eta hiru hilabetez Macachin-en, Panpan, elkartu ziren barne-ikastaro bat egiteko. Hiru hilabetez aritu ziren euskara ikasten, Euskal Herritik espresuki joan ziren bi irakaslerekin.

Bi irakasle joan ziren, 1990eko urtarrilean, material-kaxak hartuta, dena paperean, hiru hilabeteko ikastaro trinkoa ematera. Horretarako Argentinako udako opor garaia aprobetxatu behar zen, urtarriletik martxora, beraz. Egutero 6/8 eskola ordu jasotzen zituzten eta horrela eman zituzten euskalduntzearen lehen urratsak.

Martxoan, ikastaroa bukatu zutenean, bakoitza bere euskal etxera itzuli zen eta ikasitakoa irakasten hasi ziren. Benetan mirezgarria egin zuten lana. Hain maila urriarekin, garai hartako 2/3. urratsa, lanbidez irakasle izan gabe derrigorrezko irakasle bilakatu ziren. Horixe izan zen gakoa proiektuak aurrera egiteko eta ez han eteteko, izan zuen efektu biderkatzailea. Eta horrela, ikasi ahala erakutsiz, joan zen hazia erretzen.

Irakasle-gai haiek beren ikas-prozesuarekin aurrera jarraitu zuten. Garai hartan, aurrez aurreko eskolak bakarrik eskaintzen zirenez, beraien opor garaietan bakarrik eskaini genieziaiekeen ikastaroak, hots, udan bi hiru hilabetekoak eta neguan, hango neguan, bi asteak.

Eredu horri jarraiki, egin zuen aurrera "Argentinan Euskaraz" egitasmoak lehen urte haietan, urtero irakasle-gai talde berria sortuz, eta irakasleak Euskal Herritik espresuki bidaliz.

Hasierako urte haien ondoren, planaren sendotzea etorri zen. Azken finean, helburua, Argentinako euskal etxeek euskara eskaintzeko nahikoa autonomia izan zezaten zen, bai giza baliabideetan bai baliabide materialei zegokienean. Ordura artean, hemengo norbait joan eta irakasteko borondatearen baitan egotearen menpekotasuna hautsi nahian.

Hurrengo urratsa "Euskara Munduan" egitasmoa izan da. Lau urtero, Eusko Jaurlaritzak euskal gizataldeen Mundu mailako biltzarra antolatzen du E.A.E.n. Bertara, euskal etxe ala federakuntzak dauden herrialde bakoitzetik 3 ordezkari etortzen dira. Marko ezin aproposagoa FEVAk Argentinan Euskaraz aurkezteko. Eta 1999ko biltzarrean aurkeztu zutenean, inguruko herrialde batzuk ere egitasmo hori bere egin nahi izan zuten eta, batez ere, 2003ko biltzarrean ondoren, Argentinan Euskaraz mundu osora zabaltzea eskatu zuten ordezkari desberdinek "Euskara Munduan"-i bide emanaz.

Horrela sortu zen Euskara Munduan, euskal etxeen bidez, euskara ikastaroak eskaini eta hiztun kopurua handitzeko helburuarekin. Horretarako baliabideak eskura jartzen hasi behar genuen eta hiru lan lerro aurreikusi genituen.

Lehenengo lan lerroa euskal etxeetan irakasle izango zirenen prestakuntza indartzea zen. Honek esan nahi du, irakasle izango direnek euskaraz jakitea ezinbestekoa dela. Beraz, sarritan, eta herrialdearen arabera, irakasle euskaldunik ez zegoenez eskura, lehenengo euskaldundu egin behar ziren. Horretarako, 4 bat urtetako plana egin eta helburua B1 lortzea zen, gutxienez. Erronka potoloa, benetan, baina ezinbestekoa. Hala ere, urteak aurrera joan ahala asko aldatu da lan metodologia. Hasieran, aurrez-aurreko trebakuntza baino ezin zen bermatu. Horrek sekulako mugak zituen, izan ere,

urtean bitan baino ezin ziren elkartu eta hilabeteetako etenak izaten ziren ikastaro batetik bestera. Horrek ikas-prozesua asko moteltzen zuen.

Sasoi hartan IKT-en garapena ere gorantz zihoan eta urte gutxitan salto ikaragarria eman zen teknologia horren garapenean. Horrek bide berriak ireki zituen ikas-irakaskuntzan. Batetik, onlineko eskaintza egin genezakeen Euskara Munduan programatik, onlineko eskaintza asinkronikoa. Horrela ikasleak erabaki dezake zein unetan ikasi. Bestalde, astero-astero ikas-unitateak bidaltzeko aukera ematen digu, etenik egin gabe, ikasleen asistentzia guztiz pertsonalizatua egiteko aukera. Hori bai, mintzamenaren lanketa ahul samar geratzen denez, elkarreragina beharrezkoa baita eta teknologiak bide ematen badu ere, aurrez aurreko jarduna lehenesten da. Beraz, urtean egiten diren bi barne ikastaroak mintzamenaren lanketan fokalizatzen ditugu.

Irakasle-gai horietako asko, ikasi ahala, eskolak ematen hasten dira. Horregatik, euskalduntzearen bidea egiten duten bitartean, irakaskuntzarako oinarrizko irizpideak bereganatzeko trebakuntza pedagogikoa ere eskaintzen zaie. Kontuan izan behar da, gehienak ez direla lanbidez irakasle.

Bigarren lan lerroa, beren egitekoa bideratzeko ikas-materialez hornitzea da. Irakaskuntzan adituak ez izatean, eskolak emateko orduan lagundu beharra agerian geratu zen. Ez genuen espero irakasle horiek materialak sortu, egokitzeko gai izatea. Izan ere, beste lanbide batzuk dituzte, baita ere, euskara maila mugatua dute, aurrean dituzten taldeak ez dira batere homogeneousak, ez adinari dagokionean, adin guztietakoak elkar baitaitezke bertan, ezta mailari dagokionean ere. Euskal etxe askotako ikasle kopuruak ez du mailaz-maila antolatzeke aukerarik ematen, gehienetan.

Hori horrela, beraiantzat berariaz materialak egokitzen hasi ginen. Beren ikas-prozesuan erabili zituztenak, ondo ezagutzen zituztenak, beren jardunera egokitzen saiatu ginen. Euskal Etxeetako jardunik usuena 2 orduko saioak dira eta ikas-materialak horrela antolatu genituen. Ikasleentzako materialaz gain, irakasleentzako ere sortu genuen; material hori aplikatzeko jarraibideak, beharrezko zituzten azalpenak, ariketen emaitzak, transkripzioak, eta abar emanaz. Gaur egun, B2 mailaraino era honetako materiala eskaintzen da "Euskara Munduan" programatik.

Eta, hirugarren lan lerroa jarduera diruz laguntzea da. Horretarako, orain arte HABEk eta aurrerantzean Etxepare Euskal Institutuak, urtero diru-laguntza deialdia argitaratzen du, zeinen bidez, eskaintzen duten talde orduen araberako laguntza jasotzen duten.

Azken finean, bermatu nahi duguna zera da, euskara eskaini nahi duen euskal etxe bakoitzak bere baitan izan ditzala giza eta material baliabideak eta orain urte gutxi arte zuten menpekotasunari beren kabuz aurre egiteko gauza izan daitezela.

Euskara Munduan-en inplementazioari dagokionez, maila desberdinak bereizi behar ditugu.

a)Jarduera sendoa duten E. E.ak

Euskal Etxe horietan tradizio handia dute euskararen irakaskuntzan, adibidez Madril, Bartzelona, Paris, Bordele eta antzeko euskaltegietan. Gehien bat europarrak dira eta irakasleen euskara maila ona da, C1 gutxienez. Hauetan arazo nagusia irakasleen mugikortasuna izaten da. Gehienetan urtero irakasleria aldatzen da eta ikasturte berrien atarian abiapuntura itzultzen gara askotan. Horiekin, ikas-materialen berri emateaz gain, asistentzia didaktikoa eta etengabeko jarraipena egiten dugu. Bestalde, urtero, ikasturte hasieran Europako Euskal Etxeetako irakasle topaketa egin ohi dugu, batetik, beraiek beharrezko ikusten dituzten gaiak jorrazteko eta, betetik, ikasturtea guztion artean nolabait zedarrituta uzteko.

b)Hasi berriak. Ez dute aurreko taldekoek duten tradizioa. Orain urte gutxi batzuk hasi dira euskara eskaintzen. Esate baterako, Berlin, Lima, Erroma, Sao Paulo, eta abar. Gehienetan, Europan ezik, irakasleak euskalduntze prozesuan murgilduta daude. Gehienak B1etik gora. Horiei neurriko ikastaroak eskaintzen dizkiegu bai euskalduntzeari dagokionez, bai irakaskuntzarako baliabideei dagokienez.

c)Etorkizunean euskara eskaini nahi dutenak. Oraindik asko dira euskarazko eskolak eskaini nahi dituzten Euskal Etxeak. Gehienek ikasleak zain dituzte baina ez dute irakaslerik, hala nola, AEB-tako zenbait klub, Hego Ameriketako Euskal Etxe asko. Horien kasuan, irakasle izan nahi duenari, prestakuntza prozesu honetan sartzeko prest dagoenari, 4-6 urteko konpromisoa eskatzen zaio eta baita aldi berean eskolak ematen hastea ere. Beraz, euskal etxe bakoitzak aurkitu behar du bere baitan hautagaia. Hortik aurrera, Euskara Munduan programak orain arteko eskaintza mantentzen du: euskaldundu, irakaskuntzan trebatu, materialez hornitu eta diruz lagundu.

Euskara Munduan programako kopuruei erreparatuta, honako argazkia ikus dezakegu:

-Irakasleak munduan:

Hego Ameriketa:

25 irakasle prestakuntzan.

50etik gora prestatuak, gehienak B1 mailaren inguruan.

9 C1 egiaztatuta –irakasle berriak trebatzen.

Ipar Ameriketa:

16 irakasle. Gehienak joan etorrikoak. Bertako batzuk.

Urtero prestakuntza jardunaldiak AEBtan.

Europa:

Irakasle euskaldunduak. C1

Urtero topaketa, esate baterako, 2018an Valladolid.

Honek guztiak hainbat ondorio ekarri ditu. Urtero, Euskal Herritik kanpo ikasitakoa egiaztatze aukera dute. Azken urteetan urtero argitaratzen da Euskal Etxeetako ikasleak mailak egiaztatze deialdia. Madrilen eta Bartzelonan egiten dira azterketak, batz bestea, 50 bat ikasle urtero aurkezten dira eta B1, B2 eta C1 egiaztatze aukera dute. Horiez gain, beharra ikusi ezker, aztertoki gehiagotara ere ireki izan da deialdia,

adibidez, 2010ean Parisen eta 2012an Buenos Airesen. 2019rako ere Buenos Airesen aurreikusia dago.

Euskara Munduan egitasmoak 28 urte bete ondoren, lorpenak hauek izan dira:

Hastapenak gogorrak izan baziren ere, eta aurrerapausoak nekezak, orain, urteak pasata, emaitzak nabarmentzen ari dira. Azpimarratzekoa da euskararen transbertsalizazioa euskal etxeetan. Euskara jarduera isolatu bat izatetik, dantza, musa, pilota eta abarren antzera, gaur egun, euskal etxeetako eremu guztietara barreiatzen ari da poliki-poliki. Gero eta gehiago dira hizkuntz irizpideak kontuan izaten dituztenak eta dantza, musa, pilota eta beste hainbat ekintzatan euskara txertatzen saiatzen direnak. Honetan zerikusi handia du Euskara Munduan-etik pasa diren irakasle asko agintaritza batzordeetara ailegatzen ari direla eta euskararekiko eragin biderkatzaile bilakatu, bestalde, euskara gero eta garrantzi handiago euskal etxe horietako jardunean; festetan, argitalpenetan, errotulazioetan...

3. Erronkak.

Datozen urteetan Etxepare Euskal Institutuak bai irakurletza eta katedra sarean eta baita Euskara Munduan programaren eremuan dituen erronken artean ondokoak lirateke azpimarratzekoak:

-irakurletza eta Euskara Munduan sareetako euskararen irakaskuntzan **gaitasun mailak zabaltzea**: egun unibertsitate gehienetan ikasle batek lor dezaken maila A2koa izan ohi da. Badira unibertsitate bakan batzu (Poznango Adam Mickiewicz Unibertsitatea, Liverpoolgo Unibertsitatea, Chicagoko Unibertsitatea, Moskuko Lomonosov Unibertsitatea), non ikasleek B2 mailara iristeko aukera duten. Erronketako bat da aurrera jarraitu nahi duten ikasleei goi mailako ikasgaiak eskaintzerik ez dagoen kasuetan, ez unibertsitate eremuan ezta euskal etxeetako eremuan ere, euskara gaitasuna hobetzen joan daitezen aukera ematea. Erronka honetarako bidea eremu digitaletako tresnetan eta online-ikastaroetan legoke.

-Euskal Herritik kanpo dauden ikasleentzat euskara ikasteko **eremu digital egokitua** da beraz bigarren erronka, izan ere asko dago lantzeko euskara ikasteko materialaren arloan, eta bereziki atzerritarrentzat online materialaz, baliabideez eta ikastaroez ari garenean.

-Euskara gaitasunaren **egiaztagintza Euskal Herritik kanpo**: Etxepare Euskal Institutua HABErekin elkarlanean lantzen ari den erronka da hau. Izan ere, ulertzen da beste hainbat hizkuntzen kasuan bezala, euskara ikasten duten nazioarteko ikasleek ere merezi dutela beren gaitasuna ofizialki egiaztatzeko aukera eta aitortza ofiziala Hizkuntzen Europako Erreferentzi Markoan jasotako maila guztietan, orain arte HABEtik antolatu diren goiko mailez gain.

-irakurletzetako ikasleen ikerketa sustapena indartzea: irakurletza eta katedra sarean azken urteetan hasi diren lehen ikerketa ekimenak, ikerketa lanek hasitako ildoak areago sustatzea ere bada gure erronka nagusi bat. Irakurletza eta katedra sareak ereindako fruitu ezin-hobea da sare horretan euskarara hurbildu diren ikasle horiek 10 urteko epean ez euskal hiztun soilik, baita euskarari buruzko ikerlari akademiko ere izatera iristea.

Amaitzeko, esan gabe doa, euskararen bidaiak jarraitzen dutela. Urte hauetan trena ez da gelditu eta bere martxa jarraitzen du, urtero, mundu osoko 80 bat euskal etxetan ematen dira euskarazko eskolak, 2000tik gora ikasle heldu euskaldundu nahian. Horiez gain, 1800 bat ume, zeinetatik gehienak Buenos Aireseko Euskal Echea ikastetxeko ikasleak diren. Hauxe da mundu osoan eskola bakarra, E. H.tik kanpo, non euskara materia kurrikularra duten. Unibertsitate arloan ere euskararekiko jakin-mina eta ikasteko, erabiltzeko eta ikertzeko bideak ere gero eta zabalagoak dira.

-Bibliografia:

ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA. 2017 urteko memoria. <http://www.etxepare.eus/media/uploads/publicaciones/Etxepare-2017memoria.pdf>

EUROPA PRESS; "Nazioarteko 23 ikaslek euskara ikasteko egonaldiak egingo dituzte Zornotzako Barnetegian". www.deia.eus, <http://www.deia.eus/2018/06/29/bizkaia/nazioarteko-23-ikaslek-euskara-ikasteko-egonaldiak-egingo-dituzte-zornotzako-barnetegian->

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA; 3/2007 LEGEA, apirilaren 20koa, Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute Sortzeko eta Arautzekoa. EHAA 89 (2007/5/10) 10704-10713, <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2007/05/0702618a.pdf>